

Agintariok,

Euskaltzainok,

Mauleko auzapeza eta zinegotziok,

Battittu Coyosen etxekook,

Jaun-andreok,

Egun on,

Berrikitan etorri zait eskura Paben 1692. urtean argitaraturiko testua. Zuetariko askok aspalditik ezagutzen duzue. Titulua: Zuberoako ohitura edo oinarrizko legea. Testuaren hizkuntza nagusia biarnesa. Hasierako oharra frantsesez egina eta tartean martean, euskarazko hitzak, legearen hainbat pasartetan ageriko direnak, garai bateko eta oraingo Zuberoako erakundeak zirenak eta direnak: *kaiolar, zaingoa...*

Testuaren argitarazleak honetara zehazten zuen euskararen estatusa: herriaren hizkuntza zela esaten zuen, esan ere. Horrek beste galdera bat egitera eramaten gaitu, hain zuzen ere, hiru mende geroago, kontuek hala jarraitzen duten ala ez galdetzera.

Orduko hartan biarnesa zen goi mailako hizkuntza, legeetan erabiltzen zena. Euskara, aldiz, gizarte osora hedatua eta zabaldua, hizkera mintzatuaren gisan. Frantsesa orduan ari zen hedatzen, etorri berria .

Galdetu diezaiogun , bada, geure buruari, hiru mende geroago,

ia gauza bera gertatzen den. Biarnesaren ordezt, egun frantsesa da nagusi legeetan eta goi mailako erabileran, euskara, berriz, lehen orok mintzatua zena, behar baino eskas eta urriago dabil gure ezpainetan.

Bazen garai hartako zuberoarren artean lege hori maisuki aztertu zuena, besteak beste, Jakes Belakoa legelari protestanta. Jakituria handiko gizona izanik, berak idatziriko tabletek eta iruzkinek egoki erakusten dute orduko Zuberoaren giroa.

*Lehen hala, orain hula, gero ez dakit nola*, horra hor belatarren goiburua. Halakoa ere geurea, lehengoa, joana aintzakotzat hartzen duena, oraingoa lantzen duena eta gerokoa eskuratu behar duena, asmoz eta gogoz, ekin eta jarrai.

Gerogarren horren esperantzan, fermuki hartzen dugu egun Euskaltzaindian, euskararen akademian, Battittu Coyos zuberoarra, jakin badakigulako gure zeregina ez ezik, euskalgintza osoaren egitekoak ere berrindatzera datorrela.

Berrindartze horren barruan, aspalditik erakutsi du Coyosek kezka bizia euskararen baitan, nahiz hizkuntzalaritzan nahiz soziolinguistikan, hizkuntza bera eta hizkuntzaren gizarte arloa aintzat hartu dituelako bere ahaleginetan. Ezagunak dira, halaber, bere zuberoar erroak eta horretara, bi zuberoar adixkide kausituko ditu akademian, hain juxtu ere, berori gure artera ekarri dutenak, Txomin Peillen eta Jean Louis Davant.

Bai eurok eta bai beste euskaltzainok ere, ongi etorria ematen

diogu euskaltzain oso berriari, gurekin batera eguneroko lanean jardun dezan akademiaren barruan, euskararen mesedetan.

Goresmenak eta zorionak Coyosen etxekoentzat eta orain joan daitezen Xarles Bidegain azken euskaltzain oso izendatua eta Jean Louis Davant, euskaltzain oso berriaren proposatzailea, Battittu Coyosen bila eta ekar dezaten gure artera, sarrera-hitzaldia egin dezan.

Andres Urrutia

euskaltzainburua